



Nolako **eragina** dute Nafarroako Gobernuak **Hezkuntzarako** **aurkeztutako** **zergek?**

Nolako isla izanen dute
ikastetxeetan?

Hona hemen hainbat lerroko balorazioa.
Zuzendu ezean, kalitatea arrisku bizian egoten ahal da

Modu orokorrean: **% 7ko beherapena**




HEZKUNTZAKO AUREKONTUAK OSOTARA

2010 (Legea)	2011 (legea)/ejekutatua	2012 (proiekt)	Dif 2011-12	Dif %tan
680.384.745	646.216.194 632.000.000	601.067.663	- 45.148.531 - 30.332.337	- % 7 - %4 ' 9

2011 urterako onartutako aurrekontuek %1,5eko murrizketa izan zuten beranduago. Gauzak honela, ez al dute berriro egingen ?

2010 eta 2012 urteetako aurrekontuen arteko beherapena 11,62koa da.

2011ko urrira bitartera KPIren igoera izan da, 2010 eta 2011 urteen artekoa 5,6koa izan da, eta urtearen akaberan 5,8ko aurreikuspena dago. Horren arabera, 2010eko aurrekontuak mantentzeko 120 milioi gehiagoren beharrean dago, hau da, 710 milioi. **Beraz, hezkuntzan izan den benetako murrizketa 15,35koa izan da, eta hau izan den ikasle kopuru handitzea kontatu gabe.**

Hezkuntzara bideratzen den **Barne Produktu Gordina** %3,53 izatetik %3,08 izatera pasatu da, eta **ikasleko ematen den inbertsioa 6.605 erokoa izatetik (2010.urtean), 5.589 eurokoa izatera (2012.urtean) pasako da : murrizketa, beraz, %15,38koa izanen da.**

HEZKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAREN IKASLE KOPURUAREN EBOLUZIOA

	2009-2010	2010-2011	Dif 2009-2011	Dif.%tan
Publikoa	68040	69771	+ 1731	+ 2,54%
kontzertatua	37630	37755	- 125	- 0,33%
osotara	105.670	107.526	+ 1856	+1,76%

PLANTILLAK

LANGILEAK KONTRATATZEKO GASTUA (korrelazio programo-ekonomikoa)

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
357.369.000	349.388.864	- 7.981.000	- % 2 ' 24

Gastu murrizketa honetan 2011 urtean hasitako bigarren hezkuntzako murrizketaren konsolidazioa gehitu behar da (ordu lektibo gehiago eta jubilazioarengatik primen desagertzearen ondorioz)

Aurrekontu honek ez du bermatzen oraingo honetako plantilla, ez baitago inolako igoerarik ikasle kopuruaren handitze begetatiboa atenditzeko (%6,68koa izan da azken lau urteotan)



ORDEZKAPENAK EGITEKO IRAKASLEAK (41000)

2010	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
12.104.115+	6.765.863	10.949.192	+ 4.183.339	+ % 38´22

201ko aurrekontuetan %38,22ko igoera izanik ere, aurrekontua 2010 urtekoa baino txikiagoa da (1.154.923 euro txikiagoa), eta ez da nahikoa benetako beharrak asetzeko.

IKASTETXEAK

ERAIKIN BERRIAK, HORNIDURA, ETA IKASTETXE PUBLIKOEN MANTENUA (41800,41810,41140)

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
24.265.663*	10.999.990	-13.265.673 -23.151.360*	- % 54´78 - %67´80**

* gainera 2011n musikaren hiria eraikitzeke 9.885.687 milioiko inbertsioa egin zen, eta osotara 34.151.350 da.

** lehen aipatutako kantitatea sartzen da honetan.

IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDU ETA DOTAZIOA (41800,41140)

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
9.895.506	6.854.691	- 3.040.815	- %30´74

Lerro honetako murrizketa honako dakar: familiek parte bat ordaindu beharko dute, eta ondorioz, doakotasuna eta ekitatea baztertuz.

IKASTETXEETAKO GARBIKETA (41100)

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
4699039	4.143.233,00	- 555.806	-%11´84

Higiene arazoak ekar ditzake murrizketa honek, eta hori gutxi balitz hainbat langile kaleraturik izanen da, eta besteen lan baldintzak okerragoak izanen dira. Prekarietatearen igoera.





HEZKUNTZA MAILAK

0-3 ZIKLOA

	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
Eskolaratzea	8.689.895	8.411.708,00 * 7.692.114	278.187 997.781	- 3´20% - %11´47
Hornidura	323.374			

* Kopuru honetan kendu behar dira 719.594,34 euro 2011 urteko aurrekontuetan, eta beheko kantitatea ateratzen da.

Ez dago ikastetxetxe berririk eraikitzeko aurreikuspenik, eta udaletako kontzertuen jaitzieraren ondorioz, haur eskolen biabilitatea arriskuan izanen da hainbat kasutan.

LANBIDE HEZIKETA

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
3.165.317	2.416.447	- 748.870	- %23´77

Krisialdiaren hasieratik LHko eskaera goiti joan da etengabe. Gobernuak berak Lanbide Heziketa aurkeztu zuen aukera ona bezala ikastetxeetara itzultzeko, hainbat gaztek eskola utzi baitzuen lanean hasteko. Harrigarria bada ere, aukera hau ez da etorri aurrekontu igoerarekin batera, guztiz kontrakoa izan da: etengabekoa izan da jaitziera.

HELDUEN FORMAZIOA (42100)

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
90.694	90.000	-694	- % 0´77

Hemen jaitziera baino, inbertsio falta da nabarmena. Helduen formazioaren eskaera nabarmen igo da krisiaren hasieratik. Formazio handiago lortzeko ustezko "aukera" : DBHko titulazioa, batxilergoa, hizkuntzak... ez dira etorri aurrekontu igoera egokiarekin, ezta programak behar bezala egiteko beharrekoa den giza baliabideekin ere.



FORMAZIOA

IRAKASLEEN FORMAZIOA. OROKORREAN. (42150,42170)

	2008	2011	2012	Dif 2011-12	Dif %tan
JARDUERAK	712.800	370.000	217.800	-152.200	- % 41,14
Urrutikoa	226.044	200.000	140.000	-60.000	- % 30
Osoara	938.844	570.000	357.800	-212.000	- % 37,33

Haur, Lehen, Bigarren Hezkuntzako irakasleen formaziaren jaitziera %71,89ko izan da 2008 urtetik hona.

FORMAZIO LINGUISTIKOA (42400,42410,42420)

	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
Euskara	38.000	22.268	- 15.732	- %41´4
Atzerriko hizkuntzak	1.159.700	792.800	- 366.900	- %31´64

LANBIDE HEZIKETAKO FORMAZIOA(42600)

2008	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
147.254	108.738	50.000,00	-58.738	-%54

Atzerriko hizkuntzetarako lerroan murrizketa nabarmena izanik ere, orokorrean irakasleen prestakuntzarako eta atal honetarako bideratutako kopuruak guztiz neurritik kanpokoak da. Irakasle on etengabeko formazioa eman ezean, hezkuntzaren kalitatea arrikuan dago.

Langile eta langabetuen formakuntzak atal berezia eskatzen du. Ikastetxe integratuek gutxiengo bat hartatzen dute, eta kasu gehienetan entitate pribatuen esku daude, edota sindikatu batzuen esku. Gardentasun eza nabarmena da, eta ez dago inolako kontrolik edukietan, formazioa hartzeko irizpideetan, zertifikazioan...





EUSKARA

EUSKARABIDEA

2008	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
4.045.435	3.030.428	2.318.934	- 711.494	-%23' 50

EUSKARA ATALA(42410)

2008	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %
685.737	220.500	182.968	- 37.532	-%19,13

Eukara Atalaren formazio eta promoziorako aurrekontua %73,32 jaitsi da 2008 urtetik hona eta Euskabideak bere sorreran izan zuen aurrekontua %43 jaitsi da.

Agerian dago, beraz, gobernuaren asmoa euskararekin: desagertzea du helburu.

25 urte betetzen duen marko legala guztiz zaharkiturik dago, eta ez aldatzeko jarrera tinkoa ikusita , garbi ikusten dugu Gobernuaren politika helburua honako dela : **glotozidioa**.

Bestalde, Gaztelaniaren Atala sortu berri dute, irakurzaletasuna lantzea helburu nagusia duena, eta bere aurrekontua 30.570 eurokoa da. Deigarria da honako hau , behin eta berriro erraten baitute harro daudela harro daudela atal honek ebaluazio diagnostikoetan Nafarroako emaitzekin.

BEKAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

LIBURUEN DOAKOTASUNERAKO PROGRAMA - BEKAK (41140)

2011		2012	Dif 2011-12	DIF %
Liburuen doakotasuna	2.901.203	1.943.816	- 957.387	-%33
Bekak	3.629.104	3.639.104	=	=
Bekak. Eskaintza berezia	251.000	251.000	=	=

Indar handia jarri zuen gobernuak programa honetan eta orain murrizketarekin atzerapauso bat da hezkuntzaren doakotasunaren aurka.

JANTOKIAK ETA ESKOLA GARRAIOA

2011		2012	Dif 2011-12	DIF %
Jantokiak	3.575.248	3.575.248	=	=
Garraioa	13.922.578	14.248.915	+ 326.337	+ % 2' 29



UNIBERTSITATEA

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

2008	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
57.191.082	54.883.287	59.000.000	+ 4.116.713	+% 6,98

NAFARROAKO OPUSEKO UNIBERTSITATE PRIBATUA

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
	1.100.000		

Lerro hau ikerkuntza eta teknologiareko ikastetxe berrietarakoa da. Ikerkuntza eta Teknologia zentroaren beharra bada, zergatik ez dute Unibertsitate Publikoan sortzen? Unibertsitate Pribatuak berezko diru-iturria izan behar luke.

UNED

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
2.250.000	1.843.090	- 406.910	- % 18'08

GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA

2008	2011	2012	Dif.2011-12	Dif.%tan
30000	12000	?	-	--

2008 urtean Genero Berdintasunerako Zerbitzua sortu zen, eta aurreko Gobernuaren ikurra izan da, lerro ekonomikoaren kopurua nahiko sinbolikoa izanik ere. Hurrengo urtean Zerbitzu izatetik Atala izatera pasatu zen (garrantzi gutxiagokoa, beraz) eta berre aurrekontuaren jaitsiera %60koa izan zen. Hala ere, berdintasun plana aurrera atera zuten, eta maila guztietako 70 ikastetxe baino gehiagoko ikasleek hartu dute parte 2009 urtetik 2011 urtera.





LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA

2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
185.000	47.930	- 137.079	- %74'10

Kontseilariak , Mahai Sektorialean, irakasle on osasunarekiko kezka azaldu izan du, baje denbora eta arrazoia dena, eta osasun laborala hobetzeko, prebentzioa. Bere "kezka" garbi islatzen da: %74ko murrizketa.

HEZKUNTZA PRIBATUA FINANTZIATZEKO DIRUA (41140)

2011	2011	2012	Dif 2011-12	DIF %tan
NEE+ Hezkuntza Berezia+ minoriak	10.007.752	9.634.770		
Haur Hzkuntza	18.705.260	18.451.756		
Derrigorrezkoa	78.039.642	74.234.254		
Derrigorrezkoaren ondorengoa	17.600.599	16.346.259		
osotara	127.575.524	123.404.000	-4.171.524	- %3'27

Hezkuntza Pribatuaren murrizketa txikiagoa da orokorrean Hezkuntzan ezarri nahi dutena baino. Hezkuntza pribatuaren mesedetan segitzeko asmoa garbia da.

Ezin da inola ere justifikatu murrizketa lazarriak egiten ari diren momentu honetan derrigorrezkoa ez den etaparen kontzertua mantentzea, 16 milioi euro baino gehiago. Burugabekeria hau bi tokitan ematen da soilik: Nafarroan eta Madrilen.



**AXOLAGABE HUTSAK DIRA
EZ AL DIRA LOTSATZEN HAU AURKEZTUTA?**